

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

LURRALDE POLITIKA ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA

GOBERNUAREN ORDEZKARIORDETZA ARABAN

Industria eta Energiako Arloa

Zaragoza, Nafarroa eta Arabako Gobernuaren Ordezkariordeztako Industria eta Energia Eremu Funtzionalarena Irargarkia, PEol-522 AC proiektuaren Aurretiko Administrazio-baimena eta Ingurumen-inpaktuaren adierazpena jendaurrean jartzen dena. Proiektu horren barruan honako parke eoliko hauek sartzen dira: Luna (49,5 MW), Kaede (40,6 MW), Kodama (49,5 MW), Makami (49,5 MW), Kaminari (49,5 MW), Kairi (49,5 MW), Amikiri (16,5 MW), Delfino (49,5 MW), Fukei (49,5 MW), Cadmo (49,5 MW), Belerofonte (49,5 MW) eta Kyoko (49,5 MW) Zaragozako probintzian, eta bere ebakuazio-azpiegitura, Araban, Nafarroan eta Zaragoza probintzian

Proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta bete behar du, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.a artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Sektore Elektriakoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53.1.a) artikuluan, ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. eta 37. artikuluetan, eta Energia elektrikoko instalazioen garraio, banaketa, merkaturatze, hornidura eta baimen-prozeduren jarduerak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 124. eta 125. artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako, jendaurrean jarriko da PEol-522 AC espedientearen Aurretiko Administrazio-baimenaren eta Ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren eskaera. Hona hemen espedientearen ezaugarriak:

Eskatzailea: Energía Inagotable de Luna, SL (IFK: B88619507), Energía Inagotable de Kaede, SL (IFK: B88621123) Energía Inagotable de Kodama, SL (IFK: B88621719) Energía Inagotable de Makami, SL (IFK: B88621677), Energía Inagotable de Kaminari SL (IFK: B88621149), Energía Inagotable de Kairi, SL (IFK: B88621115), Energía Inagotable de Amikiri, SL (IFK: B88620877), Energía Inagotable de Delfino, SL (IFK: B88620901), Energía Inagotable de Fukei, SL (IFK: B88621057), Energía Inagotable de Cadmo, SL (IFK: B88622329), Energía Inagotable de Belerofonte, SL (IFK: B88622402) eta Energía Inagotable de Kyoko, SL (IFK: B88621685), Forestalia Renovables taldekoak, helbide soziala Madrilen duena (José Ortega y Gasset kalea 20, 2. solairua, 28.006) eta jakinarazpenetarako helbidea Zaragozan duena (Coso kalea 33, 7.a, 50.003), 976 308 449 eta 663 484 273 telefonoetan eta tramitaciones@forestalia.com posta elektronikoan.

Eskaeraren xedea: PEol-522 AC proiektuaren aurretiko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena eskatzea. Proiektuan honen barruan honako parke eolikoak daude: Luna (49,5 MW), Kaede (40,6 MW), Kodama (49,5 MW), Makami (49,5 MW), Kaminari (49,5 MW), Kairi (49,5 MW), Amikiri (16,5 MW), Delfino (49,5 MW), Fukei (49,5 MW), Cadmo (49,5 MW), Belerofonte (49,5 MW) eta Kyoko (49,5 MW) Zaragozako probintzian, eta bere ebakuazio-azpiegitura, Araban, Nafarroan eta Zaragoza probintzian.

Organo eskuduna: Aurretiko administrazio-baimena ebazteko organo substantiboa Trantsizio Ekologikorako eta Erronka demografikorako Ministerioaren Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusia da. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa da Ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko eskumena duen ingurumen-organoa.

Organo izapidegilea: Zaragozako Gobernuaren Ordezkariordeztaren Industria eta Energiaren Eremu Funtzionala (Pilar plaza, 13, 50071 – Zaragoza), Nafarroako Gobernuaren Ordezkariordeztaren Industria eta Energiaren Eremu Funtzionala (Merindadeen plaza, z/g, 31071 – Iruñea) eta Arabako Gobernuaren Ordezkariordeztaren Industria eta Energiaren Eremu Funtzionala (Olagibel kalea, 1, Vitoria-Gasteiz).

Instalazioen deskribapena:

Energía Inagotable de Luna SL. Luna parke eolikoa, 49,5 MW-koa, GE158-5,5 MW-ko 9 aerosorgailurekin, 120,9 metroko altuerako abatzekin eta 158 metroko errotore-diametroarekin, Biota, Ejea de los Caballeros eta Uncastillo udalerrietan, Zaragozako probintzian. Aurreikusitako aurrekontua: 44.976.793,11 euro.

Energía Inagotable de Kaede, SL. Kaede parke eolikoa, 40,6 MW-koa, 7 GE158-5,5 MW aerosorgailurekin, 120,9 metroko altuerako abatzekin eta 158 metroko errotore-diametroarekin, Ejea de los Caballeros, Uncastillo eta Biota udalerrietan, Zaragozako probintzian. Aurreikusitako aurrekontua: 31.988.343,94 euro.

Energía Inagotable de Kodama, SL. Kodama parke eolikoa, 49,5 MW-koa, GE158-5,5 MW-ko 9 aerosorgailurekin, 120,9 metroko altuerako abatzekin eta 158 metroko errotore-diametroarekin, Zaragozako probintziako Asín, Biota, Ejea de los Caballeros Luesia eta Uncastillo udalerrietan. Aurreikusitako aurrekontua: 43.249.877,87 euro.

Energía Inagotable de Makami, SL. Makami parke eolikoa, 49,5 MW-koa, 9 GE158-5,5 MW aerosorgailurekin, 120,9 metroko altuerako abatzekin eta 158 metroko errotore-diametroarekin, Zaragozako probintziako Asín, Ejea de los Caballeros, Luesia, Biota eta Uncastillo udalerrietan. Aurreikusitako aurrekontua: 46.459.315,44 euro.

Energía Inagotable de Kaminari, SL. Kaminari parke eolikoa, 49,5 MW-koa, 9 GE158-5,5 MW aerosorgailurekin, 120,9 metroko altuerako abatzekin eta 158 metroko errotore-diametroarekin, Zaragozako probintzian, Biota eta Uncastillo udalerrietan. Aurreikusitako aurrekontua: 42.094.640,74 euro.

Energía Inagotable de Kairi, S. L. Kairi parke eolikoa, 49,5 MW-koa, 9 GE158-5,5 MW aerosorgailurekin, 120,9 metroko altuerako abatzekin eta 158 metroko errotore-diametroarekin, Zaragozako probintzian, Biota eta Uncastillo udalerrietan. Aurreikusitako aurrekontua: 39.230.463,08 euro.

Energía Inagotable de Amikiri, SL. Amikiri parke eolikoa, 16,5 MW-koa, 3 GE158-5,5 MW aerosorgailu dituena, 120,9 metroko altuerako abatzekin eta 158 metroko errotore-diametroa duena, Uncastilloko udal-mugartean, Zaragozako probintzian. Aurreikusitako aurrekontua: 13.675.871,95 euro.

Energía Inagotable de Delfino, SL. Delfino parke eolikoa, 49,5 MW-koa, 9 GE158-5,5 MW aerosorgailurekin, 120,9 metroko altuerako abatzekin eta 158 metroko errotore-diametroarekin, Sádabako udal-mugartean, Zaragozako probintzian. Aurreikusitako aurrekontua: 39.748.748,48 euro.

Energía Inagotable de Fukei, SL. Fukei parke eolikoa, 49,5 MW-koa, GE158-5,5 MW-ko 9 aerosorgailurekin, 120,9 metroko altuerako abatzekin eta 158 metroko errotore-diametroarekin, Sádabako udal-mugartean, Zaragozako probintzian. Aurreikusitako aurrekontua: 41.602.295,40 euro.

Energía Inagotable de Cadmo, SL. Cadmo parke eolikoa, 49,5 MW-koa, 9 GE158-5,5 MW aerosorgailurekin, 120,9 metroko altuerako abatzekin eta 158 metroko errotore-diametroarekin, Sádabako udal-mugartean, Zaragozako probintzian. Aurreikusitako aurrekontua: 42.589.666,95 euro.

Energía Inagotable de Cadmo, SL. Cadmo parke eolikoa, 49,5 MW-koa, 9 GE158-5,5 MW aerosorgailurekin, 120,9 metroko altuerako abatzekin eta 158 metroko errotore-diametroarekin, Sádabako udal-mugartean, Zaragozako probintzian. Aurreikusitako aurrekontua: 42.589.666,95 euro.

Energía Inagotable de Belerofonte, SL. Belerofonte parke eolikoa, 49,5 MW-koa, GE158-5,5 MW-ko 9 aerosorgailurekin, 120,9 metroko altuerako abatzeekin eta 158 metroko errotore-diametroarekin, Sádabako udal-mugartean, Zaragozako probintzian. Aurreikusitako aurrekontua: 41.867.352,93 euro.

Energía Inagotable de Kyoko SL. Kyoko parke eolikoa, 49,5 MW-koa, 9 GE158-5,5 MW aerosorgailurekin, 120,9 metroko altuerako abatzeekin eta 158 metroko errotore-diametrokoa, Biota, UnCastillo, Luesia eta Ejea de los Caballeros udalerrietan, Zaragozako probintzian. Proiektu honetan sartzen da garraio komuneko sarera ebakutzeko azpiegitura hamabi proiektuen artean eta zati batean partekatzen da partzialki Forestalia Talde bereko beste espediente batzuekin:

– “SET Malpica” 30/220 kV Azpiestazio elektriko eraldatzailea, Uncastilloko udal-mugartean kokatuta (Zaragoza).

– 220 kV SET Malpica – SET Bayo goi-tentsioko linea, 12,91 kilometro luze. Uncastillo eta Sádaba (Zaragoza) udalerrietatik igarotzen da.

– “SET Bayo” 30/220/400 kV, Azpiestazio elektriko eraldatzailea Sádaba udalerrian (Zaragoza).

400 kV SET Bayo – SET Promotores Vitoria goi-tentsioko linea, 165,071 kilometro ingurukoa. Honako udalerrri hauetatik igarotzen da: Sádaba eta Castiliscar (Zaragoza); Carcastillo, Cáseda, Gallipienzo, Murillo el Fruto, Ujué, Pitillas, Beire, Olite, Tafalla, Artajona, Añorbe, Enériz, Adiós, Muruzábal, Uterga, Legarda, , Cizur, Cendea de Olza, Iza, Irañeta, Uharte Arakil, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Alsasua, Olatzi, Ziordia (Nafarroan), eta Asparrena, San Millán/Donemiliaga, Salvatierra/Agurain, Iruraiz-Gauna, Barrundia, Elburgo/Burgelu, Arratzua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteiz (Araban).

– “SET Promotores Vitoria” Azpiestazio elektriko eraldatzailea, 220/400 kV, Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatuta (Araba).

– 220 kV goi-tentsioko linea, SET Promotores Vitoria – SET Gasteiz 220kV, 657 metroko luzerakoa. Gasteiz (Araba) udalerritik igarotzen da.

Aurreikusitako aurrekontua: 235.745.569,84 euro.

Parke eoliko horiek Red Eléctrica de España, SAREN Vitoria-Gasteizko 220 kV azpiestazio elektrikoan garraio-sarera sartzeko baimena dute, 2021eko otsailaren 17an emana.

Helburua: energia sortzea merkatutzeko.

Bai proiektu honen aurretiko administrazio-baimena, bai ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta izapidetzea –Trantsizio Ekologikorako eta Erronka demografikorako Ministerioaren eskumenekoak dira horiek onartzea– jendaurrean jarri behar dira, eta proiektuaren eta ingurumen-inpaktuaren azterketaren informazio publikoa batera egin behar da, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikulua arabera.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, denek jakin dezaten eta proiektua, ingurumen-inpaktuaren azterlana eta, beraz, dokumentu tekniko eta ingurumeneko guztiak aztertu ahal izan daitezten, bai Zaragozan, Nafarroan eta Araban duen Gobernuaren Ordezkariordeztako Industria eta Energia Arlo Funtzionalean, bai esteka honetan:

https://www.mptfp.gob.es/portal/delegaciones_gobierno/delegaciones/aragon/proyectos-ci/proyectos.htm

Halaber, ukitutako udaletan kontsultatu ahal izango da dokumentazio guztia.

Industria eta Energia Arlo horietan egoki irizitako alegazioak argitalpen hau argitaratu eta hurrengo hogeita hamar egun baliaduneko epean aurkeztu ahal izango dira hemen: idatzizko euskarri fisikoan, Gobernuaren Ordezkariordeztako horien Erregistro Orokorrean; Estatuko Administrazio Orokorrean Erregistro Elektronikoaren bidez (<https://rec.redsara.es>); Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako erez.

Ohartarazten da pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan identifikatutako beste subjektu batzuk behartuta daudela administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzera administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko. Hori dela eta, horietako edozeinek jendaurreko informazioaren izapide honetan egindako alegazioak nahitaez bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 16a

*Arabako Gobernuaren Ordezkariordeztako Industria eta
Energia Arloko ordezko zuzendaria*
ENDIKA URTARAN MOTOS